



Izarraitz Igeri Elkartea
La salbe, 13 (Udal Igerilekuak). 20730 Azpeitia
E-mail: izarraitz.ie@hotmail.com; Tel.: 607498500

Presidente eta batzarkideen berrien aukeraketa prozesua

Izarraitz IEko kideei eskutitza,

Azaroaren 25ean ospatu genuen urteroko Batzar Orokorren azaldu genuen bezela, Izarraitz IEko presidente berria aukeratzeko hauteskunde prozesua irekitzeko deialdia zabaltzera goaz. Honenbestez, Abenduak 6tik 21era, funtzio honen ardura hartzea gustatuko litzaiokeen klubeko kide den edonork izango du bere burua edo ezagutzen duen konfiantzazko pertsona bat hautagaitzat aurkezteko aukera, horretarako behean adierazten diren telefono zenbakietako batean gurekin harremanetan jarritz (deituz edo Whatsapp bidez). Urtarrilak 15 bitartean baloratuko dirai hautagaitza desberdinak eta presidente berria izendatuko da.

Halaber, aurtengo urtean beste hiru batzarkidderen baja izan dugu eta hauek ordezkatzeko beste horrenbeste hautagaien berri behar genituzke. Lehengo kasuan bezela, behean adierazitako telefono zenbakiak erabili ditzazkezu, 2022ko Urtarrilak 15a baino lehen.

Amaitzeko, gure hausnarketa bat helarazi nahi dizuegu; Izarraitz Igeri Elkartea klub txiki bat izanik, klubeko kide, igerilari edo gurasoen partaidetza lana behar beharrezkoa da klubaren kudeaketa modu egokian eramateko eta klubaren etorkizuna bermatzeko. Beraz, animatu nahi zaituztegu Zuzendaritza Batzorde barnean zuen indarrak gehitzera. Azken urteetan, batzordeko kideak ordezkatzeko bolondresak aurkitzeko zailtasunak izaten ari gara eta aurten egoera hau berriro emango balitz, datorren urtera begira bozkako hautaketaz egitera behartuak egongo ginateke. Hori horrela balitz, 2022ko Martxoan irekiko genuke hautaketa prozesua (garaia iritsitakoan emango genituzke xehetasunak). Espero dezagun denon artean gustukoa ez den neurri hau hartzera behartuak ez izatea.

Gure bidelagun izango zaitugulakoan, jaso ezazue gure besarkadarik beroena.

Aupa Izarraitz!
(Izarraitz Igeri Elkarteko Zuzendaritza Batzordea)

Azpeitian, 2021ko Abenduak 3a

Kontaktu telefonoak:
690350472
688661340
677015568